



Unai
Ormaetxea
Zenikazelaia



EZETZ ASMATU

Urtaroei jarritako bertsoak hara, doinu berrietan.
Ea asmatzen dugun zein urtaro den bakoitza: udaberria, uda,
udazkena, negua.
Eta azken bertsoa, guztiak biltzen dituen, zer ote da?

Badoa eguzkia
zain dago **euria**
trasterora txirringa
toalla, **buggya**...
Ikasturte berrien
gorputz **urduria**
bete dugu liburuz
motxila **erdia**
hostoak jausten doaz
eguna gau **ia**
Gabonak heldu arte
zaindu **ipurdia**.

Zein urtaro da?

Udazken koloreak ja
joan dira **parketik**
umoreak ere gehiago
dauka zuri-**beltzetik**
Olentzero noiz etorri
tik-tak-tok ta tok-**tak-tik**
zaindu gorputzak ta estali
eztarriak **hotzetik**
ez dugu egingo eta
urte osoa **arotik**
elur-bolekin jolasten
ikasi **dugunetik**.

Zein urtaro da?

Berriz orlegi zelai-mendiak
berriz irrien **laguna**
Aste Santuko oporren mezu
eta argazki **bilduma**
noten arduraz baina tira
bukatzear da **jarduna**
goizean goizik kantatzea
da ondoen **datorkiguna**
horren loredun, horren ezteundun
gauak sortu du **eguna**.

Zein urtaro da?

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei eta zazpi
zazpi eguzki **printza**
txoriek do, re, mi, fa, sol, la, si
guk jar dezagun **hitza**
beroa zakar, hondarrak hondar
lagun berrien **ditxa**
oporak opor gauak gaua zor
agur gelako **fitxa**
ze polita den olatu batek
biribiltzea **bizitza**.

Zein urtaro da?

Zein da orduan udazkeneko
orbelaren **kolorea**?
Edo neguko elur pilotak
zer ote dauka **gordea**?
Irriak berez, ernaltzen al du
udaberriko **lorea**?
Ta udak nola pausa dezake
hondarretan **umorea**?
Hirurehun ta hirurogeita bost
eguneko **ohorea**
zugan ta zeure egin ezean
ez du balio **ordea**.

Lau urtaroak biltzen dituen,
zer da?